

ERRIRIK-ERRI

Inglaterra'ko
berriak

TXOMIN GARMENDIA

Agorraren 22'an itzuli giñan Ingleterra'tik sagardogilleak eta sagardoza-leak, sei egun zoragarri ugarte artan igarota. Agorraren 17'an artu gendun egazkiña Sondika'n goizeko amarrak laurden gutxitan, eta Ingleterra'ko amartaerditarako Londres'en giñan. Konturatu bear da, Ingleterra'ko orduak ordubeteko atzerapena dula gurearengandik. Laiñoz gaiñetik dabiltzan pisti oiek sasoiko daude arranek ezik!

Berrogei ta zazpi laguneko taldea giñan, geienak senar-emazteak; eta goraberarik txikienik ez degu izan alkarrekin.

Ingleterra'ko sagardo mundu ori ezagutzera joan giñan ezkeru, nere irakurle askok berri oiek jakin naiko dituzte eta or borobildu naiko nituzke nere lenengo ekiñaldiak. Ondoren saiatuko naiz beste berriketa prankorekin.

Agorraren 18'an, Londres'tik 250 kilometrotara dagon Taunton errira joan giñan sagardotegi eta sagastiak ikustera. «Taunton» izena ere sagastitik omen dator eta garbi dago erri artako berezitasuna.

Ogei ta amabost milla biztanle ditun erria da Taunton, eta lareun eta berrogei ta amar langillek lana egiten zuten sagardotegi batera joan giñan lenengo. Oraindik sagarrak bildu eta sagardo egiten asteko zaudenez, bideo bat jarri ziguten sagarrari zer tratamentu ematen zioten eta abar ikusteko. Makinetara sagarra sartu baiño len, indar aundiko urarekin zikin guztiak kentzen dizkiote sagarrari. Gure sagardogilleak lan ori sagardoarentzat uzten dute, irakiñaren bidez garbitu zezan.

Iru milla sagar klase ezagutzen omen dira, baiña irureun bakarrik erabiltzen omen dituzte sagardotarako. Sagarra, euneko larogei ta bost (85%), sagardo biurtzen dute. Gure sagardogilleak berri, euneko irurogei ta amarrean omen dabiliz. Ango sagardo eta emengoaren alkoolak berdintsuak dira, euneko sei inguru.

Amabi sagardo klase egiten dituzte eta aritzezko arrigarrizko upelak daude: bakoitzak lareun milla litro inguru kabitzen ditu, eta eun milloi litro sagardo egiten dituzte urtean. Gipuzkoa guztiko sagardotegietan, zortzi bat milloi litro egingo dira guztitara eta an sagardotegi batean eun milloi!

Bazkaria sagardotegian bertan gendunez, bazkaltzen asterako amabi klase sagardo jarri zizkiguten maiean plastikozko baso txiki batzutan. Erari garbia zan gogotik, baiña guri etzigan grazi aundirik egin. Andik aurrera sagardoa bear zunak, mostradorean eskatuta eran bear zun eta ondo pagatuta. Sagardotegi batera joan giñanez, ez gendun alakorik uste. Bazkaria ere eskaxa eman ziguten; jaki pitiñen bat bazan angosaltzarekin eta ondoan patata aundi bat azal eta guzti labean erreta. Ogian, ordez izango zan ura; ogirik beintzat ez gendun bazkari guztian ikusi.

Arratsaldean beste sagardotegi batera joan bear gendun, eta bideko otel batean gelditu giñan kapea artzeko eta bazkaria piska bat erremeditzeko. Ez alperrik! Ordubitaerdiak paseak zirala eta kapea serbitzeko berandu zala esan ziguten.

Beste sagardotegi ortara iritxi giñan; onek bai, onek Euskalerriko basarri zaar bat zirudin. Ogei ta amar ektarea sagasti zeuzkan, etxe ingurutik asita alajaiña. Sagarrondo gazte-gazteak zeuden eta erruzko sagarra zeukaten. Berrogei ta amar tonelada sagar biltzen dituzte ektareako eta urtero berdintsu ematen dute. Urtero berdin emate orrekin ere arritu giñan, baiña sagar gazteekin eta egindako estudioz iritxi omen dute ori dana.

Sagardotegi ontako tolaareak eta abar bazeukaten gurearekin antza piska bat. Emengo etekin guztia edo geinea, galbados edo patarra egiteko erabiltzen dute.

Etxeko sagastietatik kanpo sagarra erosi bear badute sagardotarako, kiloko amalau pezeta edo orrela pagatzen dute. Basarritar batzurekin urtelako tratao egiña edukitzen dute, eta orrela ez daukake kezki ez saltzailleak eta ez erosleak. Sagasti aien osasunak eta eman kortasunak lilluratu gindun geien. Sagar biltzeko eskua bezelakorik ez omen da, baiña makinaz egiten dute lanik egiten. Izan ere alako saillak eskuz pasatzeak, bildurra sartzen du.

Emengo sagardoak baiño askoz garbiagoak eta dizdiratsuagoak eraten dituzte, baiña mottelagoak, gexagoak eta guri gustatzen zaigu txinparta ori palla dutenak. Itz gutxitan esaterako txanpanatu kutsokoal. An ez da inor ikusiko guri gustatzen zaigu basoetara sagardoa altutik botatzen. Tarte aundia dago Euskalerritik Ingleterra'ra; gure sagardo mundutik angora, askoz aundiagoa da go.